

**BILBAO BIZKAIA KUTXA-EUSKALTZAINDIA:
LITERATURA SARIKETA 1997**

*Bilbo, Euskaltzaindiaren
egoitza, 1997-V-16*

**PREMIOS LITERARIOS: BILBAO BIZKAIA KUTXA-
REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA/
EUSKALTZAINDIA 1997**

Bilbao, sede, 16-V-1997

BBK SARIAK

Jean Haritschelhar, euskaltzainburua

Jaun andreak eguerdi on!

Oroituko zarete nola igaz 1996-an bi sari bakarrik eman ziren Toribio Altzaga saria antzerkian eta Mikel Zarate saria saioan, hautsik utzi zirelarik Txomin Agirre eleberriko eta Felipe Arrese Bestia olerkikoa.

Egun beraz, bi liburu aurkezten ditugu Toribio Altzaga saria *Hautsi da kristala* Mattin Irigoien-ek idatzia eta Mikel Zarate saria *Europako (zein?) Batasuna* Julen Zabalo Bilbao-k idatzia.

Zorigaitzez idazleak ez dira gure artean gaur. Mattin Irigoien-ek bere ezin etorria adierazi du faxez goiz honetan eta denek badakigu Jon Zabalo Bilbao espetxearen da-goela, baina haren ordez eta haren izenean etorri da ene aintzenean dagoen anderea, ene agurrik beroenak eskaintzen dizkioldala.

* * *

Eta orain aipatzen ditugu 1997.ko sariak:

| | |
|------------------------------------|---------------------|
| Txomin Agirre eleberri saria: | 1.300.000 pezetakoa |
| Mikel Zarate saio saria: | 1.000.000 pezetakoa |
| Toribio Altzaga antzerki saria: | 800.000 pezetakoa |
| Felipe Arrese Beitia olerki saria: | 800.000 pezetakoa |

Lanak behar dira igorri urriaren 16.erako, azken epea baita. Esperantza dugu, bai BBK.an eta bai Euskaltzaindian sari guziak emanak izanen direla aurten.

BILBAO BIZKAIA KUTXA-EUSKALTZAINdia: *Literatura sariak, 1997*

Orain dela hainbat urte hasi ziren Bilbao Bizkaia Kutxa eta Euskaltzaindia Literatura sari hauek elkarrekin antolatzen, berauen helburua literaturaren esparru guztietan euskarazko sorketa bultzatzea izanik. Sari hauek tradizio handikoak dira eta diru-horriduraren aldetik Euskal Herrian banatzen direnen artean garrantzitsuenetakoak.

Hasiera batean bi sari baino ez ziren ematen, eleberria eta antzerkia sailetan, baina saioa eta olerkia ere kontuan hartza erabaki zen literaturaren esparru guztiak harteazten. Bi urtetik bi urtera eman ziren lehen sariak, baina 1992z geroztik urtero deitzen eta banatzten dira.

Azken urte hauetan maiz gelditu da eman gabe sariren bat. Aurtengo edizioan, zorianez, zuzendu egin da joera hori eta lau sariak eman ahal izan dira. Jaso diren lanen kopuruak ere gora egin du aurreko edizioekin konparatu ezkero. Esan beharra dago, bestalde, gipuzkoarrak direla lau irabazleak eta hauetan bik aurrez ere jasoak zituztela BBK-k eta Euskaltzaindiak banatzen dituzten sari hauek: Joxe Manuel Odriozolak 1992an irabazi zuen aurten ere bereganatu duen ‘Mikel Zarate’ saria, eta Mirari Garcia de Cortazarrek 1994an ‘Felipe Arrese Beitia’ delakoa.

Hauek dira aurtengo sariei dagozkien oinarrizko datuak:

‘TXOMIN AGIRRE’ SARIA (Eleberria)

1.300.000 pezeta. Bost lan jaso dira.

Irabazlea: PELLO ESNAL ORMAETXEA

Lana: *NADA DE AGUA EN MADRID*

‘MIKEL ZARATE’ SARIA (Saioa)

1.000.000 pezeta. Lau lan jaso dira.

Irabazlea: JOXE MANUEL ODRIOZOLA LIZARRIBAR

Lana: *HIZKUNTA, KULTURA ETA GIZARTEA*

‘TORIBIO ALTZAGA’ SARIA (Antzerkia)

800.000 pezeta. Bost lan jaso dira.

Irabazlea: KARLOS LINAZASORO IZAGIRRE

Lana: *BURDINDENDA*

'FELIPE ARRESE BEITIA' SARIA (Olerkia)

800.000 pezeta. Zortzi lan jaso dira.

Irabazlea: MIRARI GARCIA DE CORTAZAR AGIRREZABAL

Lana: *KEA URRUNTZEAN*

* * *

TXOMIN AGIRRE SARIA ELEBERRIA

Egilea: PELLO ESNAL

Lan saritua: *NADA DE AGUA EN MADRID*

Eleberri honetan, 1977ko udazkenera garamatza kontalariak: azaroko asteburu batera. Ostegun-arratsaldean hasten da kontakizuna, Felix apaiz langilea aroztegitik irteten denean; eta astelehen-arratsaldean amaitu, gau-eskola bukatuta gero. Bitarte horretan, lau egun zurrinbilotsu biziko ditu Felixek, ETAren ekintza entzutetsu bezain bitxi batean harrapatuta, besteak beste.

Azken batean, orain dela hogeい urteko egoera jakin baten erretratu bizi eta xaloa da kontakizuna, aldi berean trinkoa eta gustagarria, modu arin eta umoretsuan egina, orduko taupadaz oroitu eta gaurko begiz ikusia... Eta gaurko ikuspegi honek zabaltzen dizkie ateak, hain zuzen, bigarren irakurketa patxadatsu eta sakon bati. Agian, gauzak ez dira hain simple, hain xalo, hain txalogarri, hain umoretsu... Kontuak kontu, zahagi berriaren eske hasia da ardo berria.

* * *

MIKEL ZARATE SARIA: SAIOA

Egilea: JOXE MANUEL ODRIozOLA

Lan saritua: *HIZKUNTA, KULTURA ETA GIZARTEA*

1. Nire proposamen teorikoak hiru zutabe ditu: gorputza-herria, bihotza-hizkuntza eta arteria-kultura. Beraz, Xalbador bertsolariaren irudiari hirugarren osagai bat erantsi diot: arteria-kultura. ("Herria da gorputza, hizkuntza bihotza").

2. Hiru osagai eraikitzaile ditu, nire ustez, euskaldungoak edo euskal hizkun komunikateak, eta horietako bat ezin da bestetarik berezi. Hala gertatzen bada, eta hori da gure egoera orokorra, batez ere Iparraldean, segurua izango da gure Herriaren nor-tasun-desagerpena luzarora ("bertzetik bereixten bitarik bakotxa izaite horrendako segurra hil hotza").

3. Bihotza-euskarari esker bizi da gorputza-herria, baina bihotza ez da ezer gorputzik gabe. Bihotza gorputzean dago, eta haren baitan ibili-dabil. Hala ere, bihotz-hizkuntzak damaio gorputz-herriari berezko nortasuna, taupada. Gorputzaren izate beretza, beraz, bihotzari zor dio: euskarak egiten gaitu euskaldun, baina ez euskarak bere bakardadean.

4. Arteria-kultura, berriz, gorputz-herria eta bihotz-hizkuntza elkartzen eta lotzen dituen arteria-sarea da. Hirugarren osagai hau gabe beste biak ezin dira ibili. Herriak eta hizkuntzak ezinbestekoak dute kulturaren funtzionamendua biziko badira. Nola bizi daiteke hizkuntza bat (bihotza) herri baten barruan (gorputza), bien arteko uztardura ahalbideratzen duen kulturarik (arteria-sistemarik) gabe?

5. Beraz, sistema nagusi orokorra, beste bi osagai eraikitzaleak bere baitan dituena gorputza-herria da. Tesi materialista hau ezin da inoiz ahantzi: bihotza-hizkuntza eta arteria-kultura ez dira euren kabuz, euskarri materialik gabei dimentsio sinboli-koabstraktuan bizi. Gorputz-herria da osotasuna, sistema osoaaren determinazio-gune nagusia, autonomia duen sistema bakarra (baina sistema irekia, hori bai). Hizkuntzak eta kulturak, azpisistema diren neurrian, ez dute autonomiarik: ez dira alegia autorreproduzitzen, horretarako autonomia askirik ez dutelako. Herriaren autoerreproduzioa ere, erlatiboa da noski, sistema irekiaenez: bere baitako osagaietako duen kontrolak eta ahalmenak erabakiko du bere sistema orokorra errepruduzitzeko kemenet.

6. Hiru instantziak (herria, kultura eta hizkuntza) ezinbestekoak ditu Euskal Herriak euskal herri izaten jarraitu nahi badu. Euren arteko berezketa, Xalbadorrek zioen bezala derrigorrezko hilotza izango da. Hala ere, arrazoi batzuengatik edo besteengatik, hiru osagai horiek bata bestetik aldentzeko joera eta isuri beldurgarrria dago gure Herriean. Batzueta ideologia es painolistaren eraginez: ez dezagun euskara kulturarekin eta herritasunarekin nahasi eta politizatu; besteetan, euskaltzale askoren asmo oneko toles-gabetasunak bultzatuta. Eta bi jokabideak bat datozen puntu honetan: hizkuntza-motorea herria-gorputzetik eta kultura-arteriatik autonomizatzeko joera. Haiena, noski, jukutria da, eta hauena, berriz, hizkuntzari buruzko kontzeptu sozio-linguistiko okerra.

* * *

TORIBIO ALTZAGA SARIA: ANTZERKIA

Egilea: KARLOS LINAZASORO

Lan saritua: *BURDINDENDA*

Antzerki-lan hau, azpitituluak dioen bezala, tragikomedia sasieruditio bat da, ekitaldi bakar batean emana. Zer esan nahi duen horrek? Bada, lan honetan tragedia eta komedia nahasten direla, eta bi pertsonaia bakarrek erabiltzen duten erudizioa sasikoa dela, neurri batean bederen. Zer kontatzen den ez dut aditzera emango, baina argumentua nahiz lanaren egitura aski xeheak dira. Teatro pobrea: espazio bakar xinple bat, eta bi aktore: horixe da guztia.

Lan hau, bistan da, bizirauteko idatzita dago, psikiatren hitzak ekiditzeko. Idazlan espontaneo bat da, askea, ironiaz eta umore nahikoa garratzez komunikazio/inkomunikazio dilema planteatzen da. Ihesbidea, sarritan, sarkasmoa eta disparatea izango dira. Mugak labankorrak dira, ezer ez da finkoa, iraunkorra, ukiezina. Giroa itogarrria da, obsesiboa, zoramenekoa. Baina nire bi pertsonaia gizarajoek "happy end" bat merezi zuten, eta horretan behintzat eskuzabala izan naiz.

* * *

FELIPE ARRESE BEITIA SARIA: OLERKIA

Egilea: MIRARI GARCIA DE CORTAZAR

Lan saritua: *KEA URRUNTZEAN*. Azken hilabete hauetan idatzi dituen olerkien bilduma da. Olerki solteak dira sorta honetan bildu dituenak, gaiaren eta estiloaren aldetik elkarren arteko lotura nabarmenik ez dutenak.

PREMIOS LITERARIOS: BILBAO BIZKAIA KUTXA-EUSKALTZAINDIA, 1997

Desde hace años Bilbao Bizkaia Kutxa y Euskaltzaindia-Real Academia de la Lengua Vasca convocan conjuntamente cuatro premios literarios en euskera que tienen como objetivo fomentar la creación en euskera en todos los apartados de la literatura. Estos premios se encuentran entre los más veteranos y mejor dotados económicamente de cuantos se organizan en Euskal Herria.

Aunque inicialmente se concedían únicamente dos premios, en las modalidades de novela y teatro, se incorporaron los premios de ensayo y poesía para extender el certamen a todos los géneros de la literatura. Desde 1992, estos premios que anteriormente eran bianuales se convocan anualmente.

En los últimos años ha sido frecuente que el jurado de alguna de las modalidades haya declarado desierto el premio, tendencia que se ha roto en la edición de 1997 en la que se ha producido un apreciable incremento en el número de originales presentados a los cuatro premios. Hay que destacar que este año se han otorgado premios en las cuatro modalidades. Dos de los premiados, Joxe Manuel Odriozola (ensayo) y Mirari García de Cortázar (poesía), ya habían ganado en anteriores ediciones los mismos premios que han obtenido en esta.

Los datos correspondientes a cada uno de los premios son los siguientes:

PREMIO TXOMIN AGIRRE (Novela)

Dotado con 1.300.000 ptas. Se han presentado cinco originales.

Ganador: PELLO ESNAL ORMAETXEA

Obra: *NADA DE AGUA EN MADRID*

PREMIO MIKEL ZARATE (Ensayo)

Dotado con 1.000.000 ptas. Se han presentado cuatro originales.

Ganador: JOXE MANUEL ODRIOZOZA LIZARRIBAR

Obra: *HIZKUNTZA, KULTURA ETA GIZARTEA*

PREMIO TORIBIO ALTZAGA (Teatro)

Dotado con 800.000 ptas. Se han presentado cinco originales.

Ganador: KARLOS LINAZASORO IZAGIRRE

Obra: *BURDINDENDA*

PREMIO FELIPE ARRESE BEITIA (Poesía)

Dotado con 800.000 ptas. Se han presentado ocho originales.

Ganador: MIRARI GARCIA DE CORTAZAR AGIRREZABAL

Obra: *KEA URRUNTZEAN*

* * *

PREMIO TXOMIN AGIRRE: NOVELA

Autor: PELLO ESNAL

Obra ganadora: *NADA DE AGUA EN MADRID*

En esta novela, el narrador nos conduce hasta el otoño de 1977, hasta un largo fin de semana de noviembre. El relato comienza un jueves a la tarde, cuando Félix —un cura obrero— sale de la carpintería en la que trabaja, y finaliza en la tarde del lunes, cuando terminan las clases de la escuela nocturna. En ese período, Felix vivirá cuatro días tumultuosos, enredado —entre otras cosas— en una acción de ETA tan célebre como peculiar.

En última instancia, el relato es la descripción viva y sencilla de una conocida situación que se produjo hace veinte años, narrada de manera ligera y no exenta de humor, recordada con las sensaciones de aquel tiempo pero con la mirada del día de hoy... Y esa mirada actual abre las puertas a una segunda lectura, más reposada y profunda. Porque es posible que las cosas no sean tan simples, tan merecedoras de aplauso, tan divertidas....

* * *

PREMIO MIKEL ZARATE: ENSAYO

Autor: JOXE MANUEL ODRIozOLA

Obra ganadora: *HIZKUNTZA, KULTURA ETA GIZARTEA*

El autor considera que la comunidad lingüística vasca se estructura sobre tres pilares fundamentales: el cuerpo/pueblo, el corazón/lengua y las arterias/cultura. La imagen creada por el bertsolari Xalbador (“Herria da gorputza, hizkuntza bihotza” —“El pueblo es el cuerpo, la lengua el corazón”) se complementa con un tercer elemento: la cultura como sistema arterial que relaciona necesariamente los dos conceptos restantes.

Estos tres elementos y las relaciones que se establecen entre ellos son indisociables: el cuerpo/pueblo vive gracias al corazón/lengua, siendo el corazón —la lengua— quien otorga al cuerpo —el pueblo, un latido propio, una personalidad diferenciada. Y es la cultura— el sistema arterial - el elemento que hace posible la imprescindible interrelación entre el corazón y el cuerpo, ya que ninguno de los dos pueden ser autónomo.

Por lo tanto, si Euskal Herria desea sobrevivir, le resultan imprescindibles las tres instancias (el cuerpo/pueblo, el corazón/lengua y el sistema arterial/cultura).

Sin embargo, se advierten en nuestra situación actual preocupantes tendencias que fomentan la disgregación entre los tres elementos citados. En ocasiones, se deben a la influencia de ideologías españolistas que, bajo el pretexto de no politizar la lengua, niegan la evidente relación entre la misma y la identidad y el sentido de pertenencia a un pueblo determinado. Estas actitudes se fomentan también desde la ingenuidad bienintencionada de muchos euskaltzales. En el primero de los casos, se trata de tretas no siempre limpias; en el segundo, de un concepto sociolingüístico erróneo.

* * *

PREMIO TORIBIO ALTZAGA: TEATRO

Autor: KARLOS LINAZASORO

Obra ganadora: *BURDINDENDA*

Esta obra puede definirse como una tragicomedia pseudo-erudita en un solo acto. Es decir, en ella se mezclan la comedia y la tragedia y la erudición de la que hacen gala sus dos personajes no deja de ser, en cierto modo, "pseudo-erudición"... Sin desvelar la trama, puede decirse que tanto el argumento como la estructura de la obra son simples, teatro pobre: un único y sencillo espacio y dos actores, eso es todo.

Esta obra está escrita para sobrevivir, para evitar las palabras del psiquiatra. Es un trabajo espontáneo, libre, que no se ciñe a ninguna regla o convención. En la misma se plantea con un humor bastante amargo el dilema entre comunicación/incomunicación. La vía de escape, con frecuencia, vendrá del sarcasmo y el disparate. Los límites son resbaladizos, nada es fijo, intocable o permanente. El ambiente es obsesivo y asfixiante, enloquecedor. Pero los dos pobres personajes merecen un "happy end", y por lo menos en eso el autor ha sido generoso.

* * *

PREMIO FELIPE ARRESE BEITIA: POESIA

Autora: MIRARI GARCIA DE CORTAZAR

Obra ganadora: *KEA URRUNTZEAN*

En cuanto a la obra ganadora de esta edición, *KEA URRUNTZEAN*, se trata, según la autora, de una recopilación de poemas escritos en los últimos meses, independientes entre sí y diferentes en cuanto a temas y estilos, entre los que no existe una unidad premeditada.

**BILBAO BIZKAIA KUTXA-EUSKALTZAINDIA
LITERATURA-SARIAK.
PREMIOS LITERARIOS BILBAO BIZKAIA KUTXA-
REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA/
EUSKALTZAINDIA: 1997**

Bilbo, 1998-05-22

*Jean Haritschelhar,
euskaltzainburua*

SARRERA HITZAK

Jaun-Andereak, eguerdi on!

Kazetari eta prentsa arduradunei halaber.

Eskerrak nahi dizkizut bihurtu zuri, Jose Ramón Bilbao jauna, Bilbao Bizkaia Kutxa-ren izanean hemen zaudena. Aspaldi honetan elgarrekin lan egiten dugu literatura-sariak urtero ematen. Egun aurkezten ditugu iaz sariztuaak izan diren liburuak:



Ezkerretik eskuinera: Juan Mari Lekuona, Literatura batzordeburua; Ana Toledo, Literatura Ikerketa azpibatzordeko kidea; Jean Haritschelhar, euskaltzainburua eta Literatura Ikerketa azpibatzordeko kidea; Joserra Bilbao, Bilbao Bizkaia Kutxako ordezdarria; Patri Urkizu, Literatura Ikerketa azpibatzordeko kidea, eta Ricardo Badiola Uriarte, Euskaltzaindiko argitalpen batzordeko idazkari-eragilea.

— ‘Txomin Agirre’ saria: *Nada de agua en Madrid*. Pello Esnal Ormaetxea-ren eleberria;

— ‘Mikel Zarate’ saria: *Hizkuntza, kultura eta gizartea*, Jose Manuel Odriozola Lizarribar-en saioa;

— ‘Toribio Altzaga’ saria: *Burdin denda*, Karlos Linazasoro Izagirre-ren antzerkia;

— ‘Felipe Arrese Beitia’ saria: *Kea urrunzean*, Mirari Garcia de Cortazar Agirre-zabal anderearen olerki bilduma.

Zorionak sari irabazole guziei. Bilbao Bizkaia Kutxa-ri esker agertzen dira zuen obrak. Ez ote da gauza ederragorik idazlearentzat!